

WORK-LAN 2015 GIZARTE EKONOMIAKO ENPRESA PROIEKTUEN LEHIAKETA

XEDEA

Helburu Orokorra

Work-Laneko Lanbide Heziketako Ikastetxeetako ikasgeletan ekintzaile izaera sustatzea eta Bilboaldean ekoizpen eta hazkundeko arloak lagunduko duten enpresa-ideia berrien garapena bultzatzea.

Helburu Estrategikoak:

- **ENPRESA eta EKINTZAILERIA (EE)** edo antzekoa erabiltzea lehiaketaren parte hartzerantz animatzeko. Ikasgai horretan parte hartzen dute Gradu Erdiko eta Goi Gradu LHko ikastetxeetako prestakuntza-zikloen 2. mailako ikasleek.
- Prestakuntzako ziklo bakoitza amaitzeko behar den **PROIEKTU BATEN GARAPENA**, EE ikasgaiaren lantzeko aukerari lotzea, Gizarte ekonomiako benetako enpresa egitasmo bilakatzeko haren bideragarritasuna baloratzeko aukera gisa.
- **Ikastetxeetako irakasleak inplikatzeko, ikasleen artean ekintzaile izaera dutenak identifikatu dituzten eta ideiak sorrarazteko informazio nahiz ezagutza eskaini diezaizkien.**
- **Prestatzea eta sentsibilizatzea** Lan Elkartuko Kooperatibetan eta Lan Sozietateetan ekintzailea izateko dauden aukerei buruz. Horretarako, lankidetzaren, demokrazia, berdintasuna, ekitatea eta elkartasuna balio gisa lehenesten dituen jardueren baterako gaitasunak eta trebeziak garatzea bultzatuko du.

PARTE HARTZAILEAK

Work-Lan elkarteko kideak diren LHko ikastetxeen Arauzko eta Ez Arauzko prestakuntzaren ikasleak, ikasle ohiak eta irakasleak:

- Somorrostroko Prestakuntza Zentroa
- Deustuko Salesianos Ikastetxea
- Indautxuko Jesuitak Kimika eta Elektronika Eskola
- Politeknika Ikastegia Txorierrri Koop. Elk.
- Zabalburu Ikastetxea

Gizarte Ekonomiako enpresa baten bitartez, Bilboaldean kokatutako edozein sektore edo jardueratako enpresa-proiektua aurkeztu behar dute.

Babeslea



PROIEKTUAK AURKEZTEKO OINARRIAK

- Proiektu guztiak *kooperatibaren edo lan sozietatearen egitura juridikoa* eduki behar dute
- Proiektuak *gutxienez ekintzaille -bikote batez* osatuta egon behar dira. Bietariko bat, gutxienez izango da Work-Laneko kidea den LHko ikastetxe bateko ikaslea eta ez da gehieneko kopururik egongo.
- Proiektuetan ikasleez eta irakasleez osatutako *talde mistoak* egon ahal izango dira.
- Proiektuek *gehienez 15 orrialde* izango dituzte, alde bakarrean idatzita.
- Proiektuak euskarri informatiko zein paperean aurkeztuko dira eta **gutxienez hurrengo edukiak** izango dituzte:

1. PROIEKTUAREN JATORRIA

- 1.1. AURREKARIAK, ENPRESA IDEIAREN JATORRIA
- 1.2. TALDE SUSTATZAILEA

2. JARDUERA

- 2.1. PRODUKTU / ZERBITZUAREN AZALPENA
- 2.2. LEHIAKIDEEKIN BEREIZTEN DUEN BERRIKUNTZA

3. MERKATU AZTERKETA

- 3.1. SEKTOREAREN EGOERA
- 3.2. ESKARIAREN AZTERKETA
- 3.3. ESKAINTZAREN AZTERKETA
- 3.4. AMIA MATRIZEA

4. MARKETIN PLANA

- 4.1 PRODUKTU ESTRATEGIA
- 4.2 PREZIO ESTRATEGIA
- 4.3 BANAKETA ESTRATEGIA
- 4.4 KOMUNIKAZIO ESTRATEGIA

5. BALIABIDE MATERIAL ETA HUMANOEN ANTOLAKETA

- 5.1. BEHARREZKO INBERTSIOAK
- 5.2. GIZA BALIABIDEAK
- 5.3. AUKERATUTAKO EGITURA JURIDIKOA

6. AZTERKETA EKONOMIKO-FINANTZARIOA

- 6.1. INBERTSIO PLANA ETA FINANTZA ITURRIAK
- 6.2. Galdu-irabazien kontua
- 6.3. DIRUZAINZAKO AURREKONTUA
- 6.4. PROIEKTUAREN BALORAZIO EKONOMIKO-FINANTZARIOA

Babeslea



FASEAK

- **Lehenengo fasea:**
 - Parte hartuko duten proiektu guztiak Work-Laneko dinamizatzailerei aurkezteko data: **2015eko apirilaren 30a.**
 - Ikastetxeetako dinamizatzailerek eta irakasleek osatutako epimahai batek egindako hautaketa: **2015eko maiatzaren 15a.**

- **Bigarren fasea:**
 - Work-Laneko Garapen Mahaiaren zenbait kidez osatutako epaile -taldeak egindako hautaketa: **maiatzaren 29a.**
 - **SARIAK BANATZEKO EKITALDIA. 2015eko ekaina**

SARIAK

Kategoria bakoitzean eskudiru kopuru jakin bat izango da. Haren bidez, enpresa ekimenak jartzea sustatu nahi da. Categoria bakoitzean hala banatuko da:

1. SARIA: 2.000 €
2. SARIA: 1.250 €
3. SARIA: 750 €

Gainera, irabaziko duten enpresa ekimenez WORK-LANen aholkularitza izango dute eratzeko eta sendotzeko prozesuari ekiteko, enpresa sortzea erabakiz gero.

BALORATZEKO IRIZPIDEAK

1. Berrikuntza Maila
2. WORK-LANeko LHko bost ikastetxeetan eskainitako Zikloen familia profesionalekin duen lotura
3. Lanpostuen sorrera
4. Inguruko beharrianekiko lotura eta bideragarritasun maila.

PROIEKTUEN ZABALKUNDEA

Finalera heltzen diren proiektuak egileenak izango dira eta Work-Lanek haien berri eman ahal izango du egoki deritzon baliabidea erabilita.

OINARRIEN ONARPENA

Lehiaketan parte hartzeak oinarriak eta Epimahaiak ebatzitakoa onartzea dakar. Antolakuntzak aldatu ahal izango ditu oinarriak. Parte-hartzaileak sustatzaileen aurrean aurkeztutako lanaren egiletzaren eta jatortasunaren erantzuleak dira.